

Ikaskuntza Giroak eta Ate Irekiak

Gure eskolan garrantzitsuena haurren ongizatea den ideiatik abiatuta, ate irekiak eta ikasteko giroak hartzen ditugu etapa honetan jarraitu beharreko ildo pedagogikotzat.

Ate irekien metodologiak haur bakoitzaren indibidualtasuna, interesak eta beharrak errespetatzen ditu, une ebolutiboaren arabera. Eskolan, espazio guztiak hezkuntza-eragile bihurtzen dira. Hezkuntza-asmo argi batekin pentsatu, antolatu eta prestatzen dira: hurrek beren gaitasun afektiboak, kognitiboak eta harremanetakoak garatu ahal izatea, haur trebe, gai, aktibo eta kurioso baten ikusmoldea onartuz.

Giroak espazio estimulatuak eta autoikaskuntzakoak dira, eta haur bakoitzaren aniztasuna eta banakako erritmoa errespetatzen dute. Horrela, ikaskuntza-prozesuaren protagonista aktibo bihurtzen dira. Espazio horietan, haurrak hezkuntza-proposamenak aurkitzen ditu, esploratzeko, deskubritzeko eta esperimentatzeko interesa eta jakin-mina pizten diotenak.



Ikaskuntza-giroen eta ate irekien pedagogiarekin:

- Jokoan autonomia sustatzen da, baita sormena eta erabakiak hartzea ere.
- Materialen eskaintza zehatza, aberatsa eta askotarikoa da.
- Jolasteko eta ikertzeko aukerak zabaltzen ditu.
- Irakasle-taldea eskolako espazio guztiak erakargarri, ordenatu, aberasgarri eta motibagarri bihurtzeaz arduratzen da.
- Giro lasaia sortzen du, ez baitago hainbeste haur espazio berean. Horrek gatazka kopurua murrizten du.
- Harremanak izateko aukerak ugaritu egiten dira, bai helduekin, bai adin desberdinetako haurrekin.
- Hezitzaile gehiagok parte hartzen dute haur beraren behaketan, hezkuntza-ekintza ikuspegi desberdinekin aberastuz.

Hezitzaileok haurrei laguntzen diegu deskubritzeko eta ikasteko prozesuan, eta segurtasuna eta konfiantza ematen diegu. Egiten dutena eta dituzten beharrak behatzen ditugu, beren joko autonomoa aberastuko duten erronkak eta erantzunak emango dituzten espazioak eta materialak proposatzeko.